



MENDAROKO
UDALA

2023KO ABENDUAREN 1EAN OSPATURIKO BATZAR OHIKOAREN AKTA

Bertaratutako Zinegotziak:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Enetz Ezenarro Arriola J. (EH BILDU)

ETORRITAKO ZINEGOTZIAK:

Borja Rodriguez Barreras J. (EH BILDU)

Sonia Garcia Raposo A. (EH BILDU)

Javier Muñoz Moreno J. (EH BILDU)

Dorleta Lazarobaster Arakistain A. (EH BILDU)

Iñaki Arregui Uria J. (EAJ-PNV)

Nuria Guerola Horrillo A. (EAJ-PNV)

Amaia Urra Mardaraz A. (EAJ-PNV)

EZIN ETORRIA ADIERAZI ZUTEN:

Nerea Isasi Bedayo A. (EAJ-PNV)

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:

Korporaziokoa den Nerea Etxarri Ubeda Anderea.

Mendaron eta Udaletxeko Areto Nagusian, bi mila eta hogeitahirugarreneko abenduaren 1ean zazpiak zirela, Udalbatza bildu da ohiko Osoko Bilkura egiteko.

Mahaiburu Korporazioko Alkate Lehendakaria Enetz Ezenarro Arriola izan da.

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzeko duen 7/1985 Legearen 46/2-c artikulua agintzen duena kontutan hartuz, Alkateak, hasera ematen dio Udal Ohiko Osoko Bilkura honi, aurrez konprobatuz, Korporazioko kideen gutxiengo kopurua eta Alkatea eta Idazkaria bertan daudela.

Eguneko gai zerrenda:

1. AURREKO SESIOAREN AKTAREN BORRADOREA ONARTZEA, HALABADA (2023.10.26)
2. 2024KO AURREKONTUAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.
3. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN ALDAKETA.
4. EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.
5. JAVIER MUÑOZ MORENOK MENDAROKO UDALEKO EHBILDUKO ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA.
6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.



MENDAROKO
UDALA

LEHENENGO PUNTUA. AURREKO BATZARRAREN AKTAREN ZIRRIBORROA ONARTZEA, HALABADA.- Batzar honen deialdiari 2023.10.26 datako aurreko batzarreko aktaren zirriborroa lagundurik, Zinegotzi Jaun Andereei inolako behaketarik egin behar duten galdetzen zaie.

Bat bera ere ez denez aurkezten Udalbatzak ahobatez,

erabakitzen du

2023.10.26 datako Batzarraren Aktaren Zirriborroa onartu, eta honen arabera Aktara jasotzera jo.

BIGARREN PUNTUA. 2024KO AURREKONTUAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.-

ANTOLAKUNTZA (KONTU BEREZIAK) BATZORDEAREN IRIZPENA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 14.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontua onartzea Udalaren Osoko Bilkurari dagokio.

Espedientea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan jasotako xedapenen arabera izapidetu behar da.

Aurrekontua, gainera, aurrekontu-egonkortasunaren printzipioari egokitu behar zaio, hau da, egiturazko oreka- edo superabit-egoerari.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Aurrekontu Orokorra, ekonomia- eta aurrekontu-ekitaldi bakoitzean toki-erakundeek egin beharreko jarduera ekonomikoaren zuzendaritza-programa osatzen duten erabaki guztien adierazpen formal dokumentala da, finantza- eta kontabilitate-terminoetan, eta, aldi berean, udal-baliabideen administrazio egokia kontrolatzeko tresna da.

Aurrekontu Orokorra finantza-orekaren, unibertsaltasunaren, afektaziorik ezaren eta osotasunaren printzipioak errespetatuz egin dela kontuan hartuta, aurrekontuak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren esparruan onartu eta gauzatu beharko dira, Europako araudiarekin bat etorriz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 5. artikulua xedatzen duen bezala.

Udal honen Aurrekontu Orokorra Udalaren Aurrekontuak bakarrik osatzen duela kontuan hartuta, udal antolakunde honetan ez baitago erakunde autonomorik, ezta sozietate publikorik ere.

Aurrekontu Orokorren proiektuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6. artikuluan eskatutako dokumentazioa jasotzen du.



MENDAROKO
UDALA

Aurrekontuko diru-sarrereren egoera-oria Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 7. artikuluan araututakoaren arabera egin da, kontzeptu guztiengatik hurrengo aurrekontu-ekitaldian likidatzea aurreikusten diren finantza-baliabideen zenbatekoa jasoz.

Gastuen egoera-oria Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egin da.

Aurrekontuak ez du hasierako defizitik, eta eragiketa arruntengatik sarrerek izaera bereko gastuak gehi zorpetzeagatik amortizazio-gastuak gainditzen dituzte.

Ministroen Kontseiluak 2021eko uztailaren 27an hartutako erabakiak, Diputatuen Kongresuak 2021eko irailaren 13an onartutakoak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 6/2021 Foru Dekretu-Arauak, urriaren 19koa, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2022an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoak 2024ko ekitaldirako zerga-arauen indarraldia ez dagoela ezarrita, eta hori kontuan hartu da udal-aurrekontu orokorra egiterakoan.

Aurrekontuan, Aurrekontua Betearazteko Araua jasota dago, aurrekontu-arloko xedapen orokorrak Udal honen antolaketara eta zirkunstantzietara egokitzen dituen, bai eta behar bezala kudeatzeko beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk ere.

Aurrekontu Orokorra, beraz, behar bezala osatuta dago, eranskin guztiekin eta nahitaezko dokumentazioarekin, eta Udal Idazkari - Kontuhartzaitzak aldeko txostena eman du.

Aurrekontu Orokorra onartzeko prozedurak bat etorri behar du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 14. eta 15. artikuluetan araututakoarekin.

Kontuan hartuz Aurrekontu Orokorra onartzeko erabakia Osoko Bilkurari dagokiola gehiengo soilez, eta jendaurrean jarri behar dela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki bidez, hamabost egun baliodunez.

Erreklamazioak aurkezteko, interesduntzat hartuko dira abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak. Erreklamazioak gehienez ere hilabeteko epean ebatzi beharko dira.

Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez bada.

Behin betiko onarpena abenduaren 31 baino lehen egin behar du Udalbatzak, gehiengo soilez.

Udaleko kontu-hartzaitzaren txostenekin bat etorri, eta eztabaidatu eta bozkatu ondoren, honakoa adosten da aldeko EHBILDUREN 5 BOZKA eta kontrako EAJ-ren 4 bozkekin:



MENDAROKO
UDALA

AKORDIOA

Lehenengoa.- Aurrekontuarekin batera doan aurrekontu orokorraren proiektua onartzea. Honako agiri hauek dituena:

A) Azalpen-memoria bat, aurrekontu orokorraren edukiari buruzkoa. Bertan, aurrekoen aldean aurrekontuek egiten dituzten aldaketak aztertuko dira, aldaketa esanguratsuenak azpimarratuz, bai eta aurrekontu bakoitzaren eta Aurrekontuak Betearazteko Arauan jasotako gainerako neurrien edukia ere.

B) Tokiko Sektore Publikoaren aurrekontu finkatua.

C) Aurrekontua Betearazteko Araua; besteak beste, bermeak emateko eta zorpetzeko gehieneko mugak jasotzen dituena, eta erakunde bakoitzari aplikatuko zaizkiona.

D) Txosten ekonomiko-finantzarioa, aurreikusitako diru-sarrerak eta kreditu-eragiketak ebaluatzeko erabilitako oinarriak, eska daitezkeen obligazioei eta zerbitzuen funtzionamendugastuei aurre egiteko kredituen nahikotasuna eta, ondorioz, aurrekontuaren benetako nibelazioa azaltzen dituena. Era berean, txostenak aztertuko du, modu independentean, konpromiso-kredituak finantzatzeko udal-baliabideen nahikotasuna.

Bigarrena.- Udalaren aurrekontu-proiektua onartzea, honako hauek jasotzen dituena:

1.- Ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoen gutxi gorabeherako diru-sarreraren egoera-orria.

2.- Ordainketa- eta konpromiso-betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren kredituen gastuen egoera-orria.

3.- Aurrekontuaren edukiari eta aurrekoarekin alderatuta aurkezten dituen aldaketa nagusiei buruzko azalpen-memoria, bai eta aurrekontua egiteko hartutako irizpideei buruzkoa ere.

4.- Onartutako eta erabilitako konpromiso-kredituen eranskina. Erakundeak likidatu gabeko aurrekontuetarako aurrekontua aurkezteko datan izaera horrekin erabilitakoak jasotzen ditu, dagozkien urteetarako bereizita, eta egun berean indarrean dauden kontsignazio guztiak jasotzen ditu.

5.- Ekitaldian zehar egin beharreko inbertsioen eranskina.

6.- Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien eranskina, aurrekontuan kapitulu horietarako aurreikusitako gastuak eta diru-laguntzen kontzeptuak arautzeko prozedura zehaztuta.

7.- Langileen eranskina, aurrekontu-plantilla osatzen duten lanpostuen zerrendarekin, 11/2022 legea, abenduaren 1ekoa, euskal enplegu publikoari buruzkoa eta hura garatzeko xedapenen arabera egina.

Hirugarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkiak jarritz, interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten.

Laugarrena.- Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Iñaki Arregik hitza hartu eta esaten du berak ordezkutzen duen taldea (EAJ) plantilla organikoarekin ados dagoela baina aurrekontuen contra bozkatzen dutela.



MENDAROKO
UDALA

HIRUGARREN PUNTUA. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN ALDAKETA.-

2024ko ordenantza fiskalen aldaketa proposamena.

Udal honek egokitzat eta beharrezkotzat jotzen du ondorengo tributuen ordenantza fiskaletan hainbat aldaketa egitea:

- Zerbitzu publikoakeskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko taseen ordenantza arautzailea

Alkatetzak proposatuta, Udaleko idazkari-kontuhartzailearen txostenekin bat etorritik, eta eztabaidatu eta bozkatu ondoren, ahobatez honakoa adosten da:

AKORDIOA

“LEHENENGOA: Ondoren azaltzen diren ordenantza fiskalen aldaketa behin-behinean onartzea, proposamenean agertzen den testuarekin:

- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko taseen ordenantza arautzailean 06 atalean azpiatal berriak sortzen dira, eransinean azaltzen diren zehaztapenekin.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarkitaulaneta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epeaz, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.”

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK
BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA
ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACION DE SERVICIOS PÚBLICOS
Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS



MENDAROKO
UDALA

06.-IKASTAROAK ETA TAILERRAK

001- Udalak antolatutako ikastaroak eta tailerrak

Zerbitzua ikasturtearen hasieran, indarrean dauden tarifak aplikatuko dira

- Urteko kuota (urria-ekaina) 163 €
- Matrikula berriak (urtarriletik ekainera) (%80) 131 €
- Matrikula berriak (maiatza eta ekaina) (%60) 98 €

Matrikulazio garaian ikastaroaren %60 ordainduko da, eta gainontzekoa otsailean.

Urtarriletik ekainera bitartean hasten direnak ordainketa bakarra egingo dute. Inork ez du itzulketa eskubiderik izango.

002- Euskaltegi zerbitzua: 80 euroko fidantza bat eskatuko da. %75eko asistentzia bermatzen denean erdia ikasleari itzuliko zaio.

003- Bertso Eskola: Urteko kuota 40€.

06.- CURSOS Y TALLERES

001- Cursos y talleres, organizados por el Ayuntamiento

Se aplicarán las tarifas vigentes al inicio del curso escolar correspondiente

- Cuota anual (octubre-junio) 163 €
- Altas(enero-junio) (80%) 131 €
- Altas (mayo-junio) (60%) 98 €

La matriculación se materializará con el 1er.pago del 60%, el resto se abonará en el mes de febrero. Las incorporaciones de enero a junio efectuarán un único pago. Ninguno tendrá derecho a devolución.

002- Servicio Euskaltegi: Se cobrará una fianza de 80 euros de los cuales, tras la verificación de asistencia de un mínimo del 75% se devolverá la mitad.

003- Bertso Eskola: Cuota año 40€.

LAUGARREN PUNTUA. EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-

Ahobatez honako adierazpen instituzionala onartzen da:

Euskara eta bidea

Euskaldunak gara, euskaraz gara, eta hori da gure herrien nortasunaren ezaugarri esanguratsuenetakoa: udalerrri euskaldunak gara. Mendeetan zehar gure hizkuntza zamatuta dute debeku, eraso, jazarpen eta erabakien gainetik, aurten bertan ezagutu ditugun datuek argi diote: oraindik ere gure herritarren gehiengoak euskalduna da, beste inon baino sendoago dago gurean euskara, eta udalerrri euskaldunak gero eta gehiago dira. Gurean ere asko aldatzen ari da errelateak, ordea, eta egiteko konplexuak dauzkagu aurretik; hala ere askoren artean urte askoan egindako lanaren uzta ageriko da: ezagutzak gora egin du, gero eta euskaldun gehiago gara, eta horrek ekarri du udalerrri euskaldunen lurgunea handitzea, besteak beste.



MENDAROKO
UDALA

Euskararen Nazioarteko Eguna, urtero, zer garen gogoratzeko eguna izan ohi da. Herri honek munduari ematen dion kolorea euskara dela esateko eguna. Harrokeriarik gabeko harrotasun eguna. Ospakizuna. Aurten, ordea, lanbrotuta ditugu bazterrak. Hilabetez hilabete ainubera kondenatu nahi izan gaituzte. Behin eta berriro. Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatik heldu den oldarraldiak marra gorriak gainditu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzeraino.

Euskal jendarteak eta euskal erakundeek urte askoan kontsentsu zabalarekin egindako bidea mugatu nahi izan dute. Udalerrri euskaldunek bertako hizkuntza biziberritzeko eta euskara dagokion lekura itzularazteko egiten ditugun urratsak debekatu nahi dizkigute. Gazteleraren makulupean ibiltzera eta bigarren mailakoak izatera behartu nahi gaituzte. Baina euskara da gure herriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko beharra daukagu udalerrri euskaldunek.

Izan ere, erakundeei eredu izatea dagokigu. Herritarren eredu. Ahalegin eta konpromiso handiari esker, larreakoa nahi zuten hizkuntza noranahikoa izatea lortu du herri honek, eta ezin dugu zabaldutako bidean atzera egin. Berdatzen hasitako basoa berriro lehortzea onartu. Horregatik, udalerrri euskalduna garen heinean, adierazpen honekin bi konpromiso ezagutarazi nahi ditugu. Batetik, euskararen biziberritzean eta herritarren hizkuntza eskubideen defentsan eredu eta bide-urratzaile izateko konpromisoa. Bestetik, euskarak ezinbestekoa duen lege-babesa lortzeko lanean gainerako erakundeen eta eragileen bidelagun izateko konpromisoa.

Gaur egungo atakari aurre egiteko benetako lege-orubea behar baitu euskarak, erdaren erauntsiari aurre egiteko egiturazko neurri sendoak behar dituen bezala. Dagokigun arduratik, horiek lortzeko lanerako eta elkarlanerako ordua dugu orain erakundeok, inoiz baino gehiago. Euskararen lurgunea handitu dela esateaz gain, euskararen lurgunea sendotu ere egin dela ikus dezagun hurrengo urtean. Izan gaitezen eredu. Lehenetsi etorkizuna. Erakutsi eguzkia ainubean denari. Eman diezaiegun euskara eta bidea herritarrei.

BOSTGARREN PUNTUA. JAVIER MUÑOZ MORENOK MENDAROKO UDALEKO EHBILDUKO ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA.- Javier Muñoz Moreno jaunak Mendaroko Udaleko zinegotzi izateari uko egiteko azaroaren 28ko eskabidea aztertu da.

Legez ezarritako tramitazioa egin ondoren, Osoko Bilkurari proposatzen zaio eta udalbatzak, ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

LEHENENGOA. Ondorengo zinegotzi karguari uko egin zaiola jakitea:
Javier Muñoz Moreno
NAN: 15393511

BIGARRENA.- Erabaki honen ziurtagiria Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari bidaltzea, dagokion egiaztatzen duen egiaztagiria eman ditzan:
Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegi
NAN: 1537587X

Azken udal-hauteskundeetan aurkeztu zen zerrendako hurrengo hautagaia, karguaz jabetu ahal izateko.



MENDAROKO
UDALA

SEIGARREN PUNTUA. ALKATETZAREN EBAZPENAK.- 2568/1986 Dekretu Errealeko 42 artikulua arabera, azkeneko udalbatzatik gaur egunerarte Alkatetza honek emandako Ebazpenen berri ematen da: 262/2023 zbk tik 281/2023 zbkira.

- 262/2023 zkia:** EELZ iraila 2023 onuradunen aportazioa. 18 erabiltzaile: 1.473,69 €.
- 263/2023 zkia:** Kultur Etxearen erabilera 2023 urria-abendua. 3 erabiltzaile = 1.524,00 €
- 264/2023 zkia:** Jubilatuei dirulaguntza onartzea
- 265/2023 zkia:** Abal itzulketa Aitzol Uraineri
- 266/2023 zkia:** 2024rako Ibilgailuen zergaren gaineko salpuespena eskaria desgaitasunagatik, Benigno Tena Leon
- 267/2023 zkia:** Mendaroko Plaza auzoko Goikola baserrira doan landabidea birgaitzeko proiektuan aurreikusitako obren Segurtasun eta Osasun Plana onartzea
- 268/2023 zkia:** Hirugarren luzapena. Eskualdeko ospitale inguruan zuntz optikoa berriro jartzeko obra lizentzia.
- 269/2023 zkia:** LUZAIDE KAFETEGIAREN SARRERAKO ETA TERRAZAKO ZORUA ALDATZEA
- 270/2023 zkia:** Administrari laguntzaile plaza bat merezimendu lehiaketaren bidez betetzeko hautaketa prozesuaren onartuen eta baztertuen behin-betiko zerrenda
- 271/2023 zkia:** Administrari bi plaza merezimendu lehiaketaren bidez betetzeko hautaketa prozesuaren onartuen eta baztertuen behin-betiko zerrenda.
- 272/2023 zkia:** Gizarte laguntzaile plaza bat merezimendu lehiaketaren bidez betetzeko hautaketa prozesuaren onartuen eta baztertuen behin-betiko zerrenda
- 273/2023 zkia:** Urriko fakturen 13. erlazioa: 555.501,08
- 274/2023 zkia:** epeak luzatzea. mendaroko ospitalean behe solairuko komun konponketa eta tokoginekologia zerbitzuko ateen aldaketa
- 275/2023:** ALDERDI EDER 5 ERAIKINEAREN FATXADA BAT MARGOTZEKO BAIMEN ESKAERA
- 276/2023:** EELZ urria 2023 onuradunen aportazioa. 17 erabiltzaile: 1.412,96 €.
- 277/2023:** Gabon garairako peoi baten kontratazioa
- 278/2023:** Urriko fakturak 14. erlazioa. 15.351,60 €.
- 279/2023:** Elgoibarko izarraren dirulaguntza zuriketa onartzea eta 2. Zatia ordaintzea
- 280/2023:** Sahatsu baserrirako landa-bidea konpontzeko obren kontratuaren ondorioz jarritako berme-abala itzultzea EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO S.L. enpresari
- 281/2023:** Uranga Arroyori indemnizazioa ordaintzea

ERREGU ETA GALDERAK.- Iñaki Arregik hitza harut eta dio, urrian onartutako dirsoldataren igoeraren arira, berak ukatutako igoera eguneko zentzora bideratzea nahi duela. Idazkariak erantzuten dio zaila ikusten duela legalki hori udalak egin ahal izatea. Berak kobratu dezakeela eta gero nahiko balu donazioa egin eguneko zentzora. Hala ere gaia aztertzeko geratzen da.

Aztertzeko gai gehiagorik ez daudenez, Alkate-Lehendakariak 19:30 bilkura altxatzen du. Guzti honen Akta jasotzen delarik, nik Idazkari-Kontuhartzaile moduan, Ziurtatzen dut.

O. I.,
ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA